

## **2018ko OTSAILAK 14ko OHIKO BILKURA**

**LEKUA:** Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

**DATA:** Bi Mila eta hemezortziko otsailak hamalau.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Iñaki Ugalde Alustiza.

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Jule Aranburu Mariezkurrena.  
Asier Aguirre Murguiondo.  
Erkuden Aguirre Arruabarrena.  
Xabier Aranburu Altuna.  
Ion Mujika Perez.

### **EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Julen Zabala Garcia.

**IDAZKARIA:**

Iñaki Alonso Antolín.

**BATZARRA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**HASIERA ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**AMAIERA ORDUA:** arratsaldeko zazpi tèrdiak.

### **1.- Aurreko aktaren onspena.**

Lehenik, eta aurreko Bilkurako akta irakurri ondoren, 2017-12-26 ohikoa aho batez onartzen da.

### **2.- Alkatetzaren Ebazpena.**

Jarraian Idazkariak, aurreko ohiko Bilkuraz geroztik egon diren Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du. Honakoak dira:

\* Jose M. Mugica Goyari Sutegi baserrian garajeko sarrera hormigonatzeko obra baimena emanez.

\* Juana Murguiondo Alustizari Agirieta baserrian sukaldea eta gela bat berritzeko obra baimena emanez.

\* Beñat Alustiza Insaustiri Odio baserrian esne-behi ustiakuntza egiteko Hirigintza baimena emanez (Foru Aldundiko aldeko txostena baldintzapean).

\* Asier Aguirre Murgiondori gerriko auzoan 1-ean hesia eta kontalehioak aldatzeko obra baimena emanez.

### 3.- Fakturen onarpena.

Jarraian faktura eta dirulaguntza hauek onesten dira:

ZKIA	KONZEPTU	ZENBATEKOA
1	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK	6,10
2	IZFE: KOSTO INFORMATIKOAK	36,30
3	EUSKAL EDITOREAK: BERRIA HARPIDETZA	108,25
4	TECNIKRONOS: ERLOJUAREN MANTENIMENTUA	432,45
5	ANTICIMEX: DESRATIZAZIOA	396,55
6	BABESA SUZAI: SU-ITZAGAILUEN IKUSKAPENA	26,26
7	OIANGU BERRI: ZERBITZUAK	53,8
8	CORREOS: POSTA KUOTAK ABENDUA	11,01
9	HITZARO ELKARTEA: LUDOTEKAKO GESTIOA	3075,14
10	ORONA: IGOGAILUAREN MANTENIMENTUA	204,08
11	OIANGU BERRI: ZERBITZUAK	29,5
12	MATTIN ELEKTRIZITATEA: HAURTZAINDEGIA LANAK	69,47
13	JOXE AROTZENA: DESPLAZAMENDUKO GASTUAK	227,36
14	GOIERRIKO HEDABIDEAK: GOIBERRI HARPIDETZA	45
15	OIANGU BERRI: ZERBITZUAK	343
16	TOLOSAKO HILTEGIA: EKARPENA	100
17	CORREOS: POSTA KUOTAK URTARRILA	19,31
18	IPLAY: HAUR PARKEA	1815
19	GIPUZKOAKO URAK: UR KONTSUMOA	87,14
20	SUM. ALONSO: MATERIALAK	27,41

### 4.- 2018ko Aurrekontuaren onarpena.

2018 urteko Aurrekontu Orokorra ikusita eta Udal Idazkariak egindako txostena kontutan hartuta, aho batez hasierako onarpena egiten da. Jendaurrean jarriko 15 eguneko epean. Erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, beste akordiorik hartu gabe, behin betiko onartutzat emango da.

Aurrekontua kapituluka laburturik hau da:

Sarrereren egoera

Kapitulua      Izena

Euro

1	Zuzeneko Zergak	48.080,00
2	Zeharkako Zergak	5.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	19.683,00
4	Transferentzia arruntak	260.466,00
5	Ondarezko sarrerak	125.750,00
7	Kapital transferentziak	91.021,00
	Guztira .....	550.000,00

#### Gastuen egoera

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	117.590,00
2	Ondasun arrunten erosketak	125.779,00
3	Finantza gastuak	10.030,00
4	Transferentzia arruntak	59.401,00
6	Inbertsio errealak	176.000,00
9	Pasibo finantzarioak	61.200,00
	Guztira .....	550.000,00

Era berean, 2018. urterako Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda onartzen dira.

#### **5.- Peoien Lan-Poltsa eratzeko, hautaketa prozesua agindu behar duten ionarri-rauen onarpena.**

Jarraian peoien lan-poltsa bat eratzeko, hautaketa prozesua agindu behar duten oinarri-arau hauek aurkezten eta aho batez onartzen dira:

#### **Lehena.- Deialdiaren helburua.**

Hautaketa probak deitu ditu Udalak, 'lan-poltsa' bat eratzeko, PEOIen lanpostuarekin lotuta gertatzen diren egoera beharrei erantzuteko balioko duena.

Poltsa hori indarrean egongo da udalaren iragarki taulan behin betiko argitaratzen dugunetik lan poltsa berri bat onartu arte, lan eskaintza baten bidez antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bat behin betiko betetzen bada edota lan poltsaren deialdi berri baten bidez.

### **Bigarrena.- Egitekoak.**

*Ardura orokorrak:* Peoi lanak egitea.

*Zeregin esanguratsuenak:*

- Zereginak egin igeltserotza, zurgintza, saneamendu, elektrizitate, bide seinaleetako lanetan laguntzeko.
- Garbitu iturriak eta bideak.
- Muntatu eszenatokiak eta aldamiok.
- Lagundu elurte eta izozteetan horiek kendu edo prebenitzeko lanetan, bai eta izaera bereziko egoerak arintzeko direnetan ere.
- Kolaboratu larrialdi eta hondamendi egoeretan: suteak, elurteak.
- Kolaboratu jaietarako muntaietan.
- Udal makinen mantentze beharren berri eman.
- Eta, oro har, bere kategorian haren arduradun hierarkikoak eskatzen dizkion egiteko guztiak.

### **Hirugarrena.- Izangaiek bete behar dituztenak.**

Hautaketa prozesuan parte hartzeko, hauek bete behar dira:

- Nazionalitate espainiarra izatea, Enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legearen 57. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.
- Hamasei urte betetik izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroaren gehienezko adina ez pasatzea.
- Eskola graduatuaren jabe izatea, edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
- Indarrean dagoen B gidabaimenaren jabe izatea.
- Zereginak egiteko gaitasun funtzionala izatea.
- Diziplinako dosierraren bidez Estatuko edo Toki Administrazioiko edo Erakundeen Administrazioiko zerbitzutik baztertu ez izana, ez eta funtzio publikoak betetzeko gaitasunik gabe egotea ere.
- Ez egotea sarturik ezintasun edo bateraezintasuneko lege arrazoi batean.
- Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte izangaiek, bateraezintasun baldintza izan ezik, lanpostuaz jabetzen den egunean edo kontratua sinatzen duen egunean bete beharko duena, bata edo bestea, aukeraturik gertatuz gero.

### **Laugarrena.- Eskabideak.**

Eskaerak, deialdia argitaratzen denetik hamar eguneko epean, aurkeztuko dituzte Udal honetako Erregistro Orokorrean, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 3071992 Legearen 38.4 c) artikulua ezarritako eran, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua.

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeak berekin dakar eskaeran jasotako datu pertsonalak tratatzeko onespena, hau da, behin-behineko eta behin betiko emaitzak iragarki-oholetan argitaratzeko eta lan poltsa gestionatzeko erabiliko diren datuak tratatzeko. Datuak ikusi, aldatu, zuzendu edo ezabatze eskubideaz baliatu nahi izanez gero, dei egin duen organora jo beharko dute.

Edonola ere, eskaera izenpetzeak esan nahi du lehiakideak baduela datu-tratamenduaren berri, eta aipatutako helbururako datu horiek erabiltzeko onspena ematen duela.

### **Bosgarrena: Izangaiak onartzea.**

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, 10 eguneko epean, onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda zehaztuko du Alkateak, eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da zerrenda hori.

Aipatu zerrendan baztertuta agertzen diren izangaiek 3 eguneko epea izango dute zerrendatik kanpo uztearen kontra eta hori gertatzeko egon daitezkeen akatsak zuzendu edo falta diren agiriak aurkezteko. Erreklamatzeko epe hori igarotakoan eta horiek erabaki eta gero, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartuko du alkateak eta horiek iragarki taulan argitaratzea aginduko du. Behin-behineko zerrenda besterik gabe behin betikotzat joko dugu, inolako erreklamaziorik egon ezean.

Prozeduraren edozein momentutan jakinez gero Epaimahaiak izangaietako baten batek ez duela betetzen deialdian eskatzen diren baldintzetakoren bat, hautaketatik kanpo utziko dute, interesdunari entzun eta gero.

### **Seigarrena.- Epaimahaia.**

Honela eratuko da hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia

**Epaimahaiburua:** Alkatea.

**Epaimahaikideak:** Bi zinegotzi, Udal teknikari bat.

**Idazkaria:** Udalaren funtzionario bat.

Deialdi honetan agindu behar duen Kalifikazio Epaimahaiaren osaera osoa jendaurrean jarriko da onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendarekin batera.

Edozelan ere, aholkulariak ekarri ahal izango ditu epaimahaiak, hautaketa prozesuko proba guztietara edo batzuetara, eta mugatuko dira horiek haien espezialitateetara, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte. Bileran direnen boto gehiengoaz erabakiko du epaimahaiak, eta berdinduz gero, epaimahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.

Mahaikideek ez dute esku hartuko, edo errekusatu egingo dituzte, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan jasota datozen gorabeherak biltzen badira.

Halaber, aurreko arrazoietakoren bat biltzen denean, interesdunek epaimahaiko kideak errekusatu ahal izango dituzte, legezko testu horretako 29. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **Zazpigarrena. Hautaketa prozesua**

Sarrera irekiaren sistemaren bidez hautatuko dira izangaiak oposizio bidez.

Ariketa bakoitzaren kalifikazioak argitaratu eta gero, hiru egun baliioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko.

*Lehenengo proba: praktikoa.* Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Bi zeregin praktiko egin behar da, oinarritzakoak, espezialitate hauetakoak: Jardineritza, Igeltserotza eta brikolajea.

Ariketa hau 0tik 50 puntura arte baloratuko da. Ariketa honetan 25 puntu baino gutxiago lortzen duten izangaiak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.

*Bigarren proba: Euskara.*

Euskaraz dakiela egiaztatzea izango da, 1. hizkuntza eskakizuneko mailan. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea 20 punturekin baloratuko da.

Ariketa hau egitetik salbuetsita egongo dira hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duten izangaiak, eta horretarako HAEK egiten duen ziurtagiria aurkeztuko du, edo beste Zentro batzuek egindako ziurtagiriaren bidez, horiek baliozkotzea ezartzen du Eusko Jaurlaritzako apirilaren 15eko 86/97 Dekretuak, hainbat neurri artikulatzen duena, Euskal Administrazio Publikoetan Euskararen erabilera normalizatzeko prozesua aplikatzeko.

### **Zortzigarrena.- Kalifikazioa**

Azken kalifikazioa honela izango da: oposizioko bi probatan lortutako puntuen batuketa.

### **Bederatzigarrena.- Epaimahairen proposamena**

Hautaketa probak bukatutakoan, gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko du epaimahaiak iragarki taulan, lortutako puntuazio ordenan, eta organo eskudunari bidaliko dio aldi baterako lan poltsa moduan erabiltzeko.

### **Hamargarrena.- Baldintzak betetzen direla egiaztatu.**

Aukeratutako izangaiak, ezarritako epean, deialdi honetan hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen dituzten baldintzen egiaztagiria aurkeztuko ditu. Adierazitako epean, aurkeztu ezean eskatutako agiriak, edo eskatutako baldintzak bete ezean, Udalak ezingo du izendatu edo kontratatu eta baliorik gabe geratuko dira jardun guztiak, kontuan izanik erantzukizuna izan dezakeela bere eskabidean gezurra esateagatik.

**Hamaikagarrena.- Kontratazioak.**

Ikusirik peoi plazetan sortzen diren aldi baterako langileen beharrak, Udalaren organo aginpidedunak aldi baterako kontratatuko ditu, puntuazio hurrenkeran deituta lan poltsan sartuta daudenak. Soldata Udalitzeko 6. Mailarena izango da.

**Hamabigarrena.- Gorabeherak.**

Epaimahaiak baimena du sortzen diren zalantzak argitzeko eta lehiaketa- oposizioa ondo joan dadin beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian. Deialdi hau, horren arauak eta hortik datozen eta Epaimahaiaren jardunetik datozen administrazio egintzak inpugnatu ahal izango dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean ezarritako moduan eta epeetan.

Eskaerak aurkezteko azkeneko eguna 2018-02-28a izango da.

**6.- Galde-erreguak.**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko zazpi tèrdiak direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.